

JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

HARTZAILEAK: DBH I-2 mailak

DENBORA: 45 min.

HELBURUAK:

- Xaguxatarren biologia ezagutzea: habitata, ohiturak, elikadura, hibernazioa, espezieen dibertsitatea.
- Xaguxatarren mundura hurbiltzea eta beraietaz daukaten irudi negatiboa baztertzea.
- Ugaztun honek bere inguruan eta gizakiarengan dituen onurak ezagutzea eta baloratzea.
- Mehatxatuta dauden espezieak identifikatzea.
- Izarraitzen bizi diren xaguxatar espezieak ezagutzea.

EDUKIAK:

- Xaguxatarrak: ezaugarriak
- Habitata
- Elikadura
- Ekokokapena
- Hibernazioa
- Ugalketa
- Galtzeko zorian dauden animaliak eta arrazoiak
- Xaguxatarrak babesteko neurriak

METODOLOGIA:


- Bisitaldian, Izarraitz mendigunean bizi diren lau xaguxatar espezieren berri emango zaie, Xaguxatar parkeko bost gune ezberdinetan oinarrituz, espezie hauen bereizgarriak azalduko dira: non bizi diren, zertaz elikatzen diren, nola ehizatzen duten, zein diren beraien mehatxuak... Euskal Herrian bizi diren beste xaguxatarrei buruzko oinarritzko azalpenak ere emango zaizkie: zenbat espezie dauden, zein diren espezie hauek, arriskuak...



JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA



ENBOR
BERTIKALEN
BARATZA



LABERINTOA



XAGUXATAR
HORMA



INTSEKTUEN
HOTELA



EGONGUNE
ALTERNATIBOA

Ondoren, taldean eztabaidatuko dugu zer egin dezakegun xaguxatarrek babesteko. Amaitzeko, aholkuak emango zaizkie bakoitzak egin ditzaken gauza sinpleak azpimarratuz.

GIDOIA:

• Xaguxatarrak: Ezaugarriak

Xaguxatarrak ugaztunak dira eta hegan egiten dute. Beraien aurreko besoak hegal gisa garatu dira eta horregatik hegan egiteko gai diren ugaztun bakarrak dira. Xaguxatarrek hegan egiteko energia ugari behar dute. Horregatik, gorputzaren zati handi bat hartzen duen bihotz erraldoia dute. Ileak kolorazio oso iluna du (beltz-marroixka). Xaguxatar batzuetan, ileen puntak zurituta ager daitezke.

Euskal Herrian 26 espezie baino gehiago daude eta ia ingurune guztietan aurki daitezke, nahiz eta jendeak pentsatzen duen kobazuloak direla hauen bizileku bakarra. Gure inguruan daude, baina ezezagunak dira gehienontzat.

• Habitata

Xaguxatarrak ia txoko guztietan aurki daitezke: hirietan, basoetan, zelaietan, harkaiztietan... Bakoitzak leku ezberdinak gogoko ditu: kobazuloak, eraikin hutsak, zuhaitz zaharrak...

Azpeitiko erdigunetik kilometro eskasetara kokaturiko Izarraitz mendigunean lau xaguxatar espezie bizi dira:

- 1- Ferra-xaguxatar handia** (*Rhinolophus ferrumequinum*)
- 2- Geoffroy xaguxatarra** (*Myotis emarginatus*)
- 3- Hego belarrihandia** (*Plecotus austriacus*)
- 4- Ipar Belarrihandia** (*Plecotus auritus*).

JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

Hauek ere, leku desberdinak hautatu dituzte bizi izateko: kobazuloak, zuhaitz zaharrak...

Basoak, larreak eta gune harritsuak tartekatzen diren eremu honetan beraiekin batera animalia ugari bizi dira, eta beraz, Izarraitz mendigunea babestutako lekua da, Kontserbazio Bereziko Eremua, hain zuzen, eta Natura 2000 Sarean dago.

Izarraitzeko Kontserbazio Bereziko Eremuaren azalera: 1593 hektareakoa da.

Atsedena lasai hartzeko, inork gogaituko ez dituzten zirrikituak erabiltzen dituzte xaguxatarrek, zuhaitz zaharren zulotxoak, esaterako.

Zuhaitz zaharrak ez dira soilik xaguxatar batzuen bizilekuak, hainbat ugaztun, hegazti, edota xomorrok ere bertan ezkutaleku ezin hobe topatzen dute. Horregatik, gure mendietan zuhaitz zaharrak egotea oso garrantzitsua da.

Euskal Herriko baserri-inguruneak zelaiez eta horiek bereizten dituzten baso-orban txikiez edo hesi biziez osaturik daude batez ere. Basoak eta zelaiak tartekatzen diren ingurune horiek oso aberatsak dira intsektuei dagokienez, eta, ondorioz, xaguxatarren presentzia ere nabarmentzekoa da bertan. Ferra-xaguxatarrak (*Rhinolophus ferrumequinum*), era horretako lekuetan ehizatzen du.

• Elikadura

Xaguxatarrak ilunzaleak dira. Egun argiz ezkutuan egoten dira, eta gauez irteten dira janari bila.

Landare-hostoen gainean geldirik dauden intsektuak harrapatuz elikatzen dira. Hala ere, hegan ehizatzen ere ikusi izan dira. Landaredia eta lurzorutik oso gertu hegan egiten dute normalean.



Ekoetxea Azpeitia eraikinaren horman kokaturiko intsektu-hotelean intsektu askok elikagaiak edota aterpea topatzen dute, eta xaguxatarrak haien zelatan ibiltzen dira janaria aurkitzeko.

Lizar eta erramuekin batera beste hainbat landare hazten dira Xaguxatar Parkean. Horietan, intsektuentzako erakargarriak diren lore ederrak topatu daitezke maiz. Hala, koloreak edota usainak erakarrita, intsektu ugari ibiltzen dira lorez lore nektar gozoaren bila. Lorez lore ibiltzeari esker, landareen ugalketa baimentzen dute intsektuek, landareen polena oharkabeen zabaltzen baitute lore batetik bestera. Beraz, landareak intsektuei komeni zaizkie, baita

>>

JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

xaguxatarrei ere. Izan ere, ondo elikaturiko xomorro alai askoren artean ehizatzea errazagoa gertatzen zaie.

Intsektuak gehiegi ugaritzea ez da ona, izurriteak kaltegarriak baitira. Eta xaguxatarrek ekiditen dituzte izurrite horiek.

• Ekokokapena

Xaguxatarrak ez dute argitasuna gustuko. Horregatik, egun argiz nekez ikusten dira. Beren gordelekuetatik ilunabarrean irteten dira xomorroren bat ehizatzen saiatzera, eta noski, gauaren etorrerarekin batera ikusmena gutxitu egiten zaie. Horregatik, ikusmenaz gain, badaukate bereziki garaturiko zentzumena: entzumena.

Beraien entzumen apartari esker, ekokokapena izeneko estrategia erabiltzen dute elikagaiak topatzeko eta baita horren gustuko dituzten kobazuloetan ibiltzeko ere. Nola? Gizakientzako entzunezinak gertatzen diren soinuak sortzen dituzte aho edo sudurretik, ultrasoinuak. Haien uhinei esker, hau da, itzultzen den oihartzunean erreparatuz, iluntasunean mugitzeko ezinbestekoa gertatzen zaien informazioa eskuratzen dute: inguruko gauzen tamaina, egitura, gogortasuna, mugimendua... Horrela, ultrasoinuen laguntzarekin, gune bakoitzeko mapa eskuratzen dute etengabe.



• Hibernazioa

Neguan, intsektujaleak diren xaguxatarrek hibernazioa egiten dute. Hibernazio garairako koipe erreserba handia behar dutenez, udazkenean asko ehizatzen dute. Beti tenperatura berdina duten toki lasai, heze eta ilunak hautatzen dituzte (lurpeko harrobiak, harpeak, leizeak...). Sabaitik eskegita hibernatzen dute, beste arrazoi batzuen artean, lurreko harrapariengandik salbu egoteko.

Hibernazio edo negutze garaian, bihotzaren taupadak geldotu egiten zaizkie (450 taupadatik 20 taupadara pasatuz), arnasaldiak moteldu egiten dira

eta batzuetan ordu bateko arnas gelditzeak gertatzen dira. Horrez gain, gorputzaren tenperatura apaldu egiten da. Espezie batzuetan, indibiduoak batak besteen kontra tinko-tinko jartzen dira berotasun jaitsiera mugatzeko eta multzo bereizgarriak osatzen dituzte. Negutze erdian esnatuz gero, haien bizia arriskuan jartzen dute; izan ere, bihotz-taupadak eta arnasketa-erritmoa asko bizkortzen dituzte, eta, energia-gastu handia suposatzen die horrek. Hori dela eta, linternekin argi egitea, mugikorrak erabiltzea, oihukatzea edo mugimendu bortitzak egitea kaltegarria da xaguxatar koloniarentzat.

Espezie gehienak udaberriarekin batera, eta tenperatura epelek lagunduta hartzen dute martxa.

Izarraitz inguruan bizi diren xaguxatarrei ez zaizkie bidaia luzeak gustatzen. Batetik bestera asko mugitzen dira baina jatorrizko eremutik gehiegi aldendu gabe. Mundu zabaleko beste hainbat txokotan bizi diren beste batzuek, ordea, ehunka kilometroko bidaia egiten dituzte hibernaziorako leku egokiak topatzeko. Hainbat hegaztien antzera, xaguxatar migratzaileak dira.

• Ugalketa

Xaguxatar gehienek kume bakarra izaten dute urteko, eta posible da zenbait urtetan kumerik ez izatea ere. Amaren sabelean hilabete eta erdi egoten dira, eta jaiotzen direnean, amak esnea ematen die hilabete 1etik 4ra bitartean.

Kumeak udaberriaren erdialdetik uda hasierara bitartean jaiotzen dira. Jaioberritan kumea amaren sabelean itsatsita egon ohi da askotan, eta amak kume eta guzti ehizatzen du lehen egunetan. Ondoren, ordea, kumea gordelekuan utzi eta bakarrik ehizatzen du amak, bi orduan behin edo kumeari esnea ematera itzuliz. Zenbait espezietan zaintza partekatu egiten dute, hau da, emeek beraien kumeez gain gainerakoen kumeak ere zaintzen dituzte ehizatu ahal izateko.

• Galtzeko zorian dauden animaliak


Ezagutzen diren xaguxatar asko arrisku-egoeran daude, eta haien kontserbazioan laguntzea beharrezkoa da. Euskal Herrian dauden ia xaguxatar guztiak (hiru edo lau espezie ezik) galtzeko zorian daude (galtzeko zorian dauden espezieen EAEko katalogoan, 21 xaguxatarrak dira. Nafarroan, berriz, 14 dira xaguxatarrak).



JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

Mehatxuak:

- **BIZIGUNEETAKO ZULOAK IXTEA:** eraikuntza zahar asko berritzen dira, gaur egun irekidurarik nahiz sotorik ez duten eraikin modernoak eraikitzen dira, eta ganbarak logela bihurtzen, horrela xaguxatarrei betidanik erabiltzen dituzten eremuak kendu zaizkie (teilatupeak, eliz dorreak, ganbarak, zubiak...). Meatze eta harrobien lurpeko zatiak segurtasunagatik ixten dituztenean, haitzulotar espezieek bizitokia galtzen dute. Era berean, zuhaitz zaharrak eta basoak mozteak zuhaitzetan bizi diren gau-enarei bizilekua kentzen die.
- **PESTIZIDEN ERAGINA,** hauek xaguxatarrek beren elikadurarako behar dituzten intsektuak akabatzen dituzte edo zuzenean xaguxatarrak pozoitzen dituzte.
- **BEHAR EZ DENEAN IRATZARTZEA:** neguan edo egunez esnatuz gero, energia xahutzeak xaguxatarrak asko nekatzen ditu, eta heriotza eragin diezaieke.
- **GAIXOTASUNAK:** izurriteek kalte handiak sortzen dituzte xaguxatarren kolonietan.
- **GIZA MEHATXUAK:** Hainbat kobazuloetan guztiz desagertu edo gutxitu egin dira xaguxatarrak kobazuloak ez direlako babestu eta txangozaleak sartu direlako inolako kontrolik gabe. Turismoaren garapenak (kobazuloetara txangoak, espeleologian espezializatutako enpresak...) mehatxu nabarmena suposatzen du.
- **HARRAPARIAK:** etxeko katuak, katajineta arruntak eta hontzak besteak beste, baina oso arraroa da.



JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

- **Xaguxatarrak babesteko neurriak:**

Kasu gehienetan gertatzen den bezala, animalia hauen kasuan ere, laguntzeko modurik onena bakean uztea da.

Koba edo meategi batean xaguxatarren bat ikusten baduzu, segi ondorengo gomendioak eta xaguxatarrek eskertuko dizute!

- **EZ UKITU XAGUXATARRAK.** Kontua eduki xaguxatarrak beren posiziotik ez mugitzeko, bereziki pasabide baxuetatik igarotzen ari zarenean.
- **EZ ARGAZKIRIK ATERA XAGUXATARREI.** Flashak asko aztora ditzake.
- **HIBERNATZEN ARI DIREN XAGUXATARRAK EPELTZEAK TORPORRETIK(I) ESNA DITZAKE.** Saiatu xaguxatarren azpian ez egoten edo espazio txikitik ez luzatzen; zure gorputzeko beroa nahikoa izan baitaiteke torporretik esnatzeko.
- **EZ ZUZENDU ARGIA DISTIRATSURIK XAGUXATARREI.** Argiak eta beroak esna baititzakete. Karburo-lanparak ekidin behar dira bereziki, sortzen duten bero eta keagatik.
- **EDOZEIN ESTIMULU GOGORREK ESNA DITZAKE XAGUXATARRAK.** Beraz, koban gehiegizko soinuak egitea edo erretzea ekidin.
- **KOBAZULOAN XAGUXATARREN KUMATZE-KOLONIA BAT BADAGO, EZ SARTU.**

(I) Torpor egoera: gorputzeko tenperatura jaitsita eta metabolismoa mantsotuta.

